

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1521

17/2001 FORU DEKRETUA, martxoaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren araudiak aldatzen dituena (lehenengoa abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuak onartu zuen eta bestea abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuak).

Foru dekretu honen helburua bi zergaren araudiak aldatzea da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuak onartu zuena, eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudia, abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuak onartu zuena.

Foru dekretu honek bi artikuluko dauzka –bat araudi bakoitzerako, eta azken xedapen bat. Lehenengo artikulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokio eta bigarrena Sozietateen gaineko Zergari.

Hauxe da araudiaren aldaketaren xedea: oraindik aurrera kapital adarrek inbertsio sozietateek eta talde inbertsio beste erakunde batzuek atxikipenak aplikatu behar izatea akzioen jaulkipen primak banatzen dituztenean eta kapitala txikitzen dutenean ekarpenak itzultzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onartzen duen abenduaren 11ko 76/2007 Foru Dekretuan aldaketa hauek egin dira:

Bat. 101. artikuluko i) letra honela geratu da:

“i) Akzioen edo partaidetzen jaulkipen prima itzultzearen edo sozietatearen kapitala bazkideei ekarpenak itzuliz murriztearen emaitzako etekinak, banatu gabeko mozkinenak direnean izan ezik, Zergari buruzko Foru Arauko 44.2.a) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharko zaie Zergari buruzko Foru Arauko hogeita batgarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatiko a) letrako lehenengo paragrafoan aipatzen diren higigarrien kapitalaren etekinei, bai eta Talde Inbertsio Erakundeak buruzko Legean ezarritakoaren arabera eraturako kapital adarrek inbertsio sozietateen jaulkipen primei ere (jaulkipen prima Zergari buruzko Foru Arauko hogeita batgarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen da).

Aurreko paragrafoan xedatutakoa Zergari buruzko Foru Arauko hogeita batgarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian aipatzen diren talde inbertsio erakundeen etekinei ere aplikatuko zaie.”

Bi. 102. artikuluko 2. idatz zatiari g) letra gehitu zaio; hona:

“g) Kapitala txikitzen bada ekarpenak itzultzeko eta akzioen jaulkipen primak banatzen badira (kasu hauek araudi honetako

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1521

DECRETO FORAL 17/2011, del Consejo de Diputados de 8 de marzo, que modifica los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, aprobados por Decretos Forales del Consejo 76/2007, de 11 de diciembre y 60/2002, de 10 de diciembre, respectivamente.

El presente Decreto Foral tiene por objeto la modificación de los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Sociedades, aprobados por Decretos Forales 76/2007, de 11 de diciembre y 60/2002, de 10 de diciembre, respectivamente.

El Decreto Foral se estructura en dos artículos, uno para cada Reglamento, y una disposición final. El primero de los dos artículos se ocupa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y el segundo del Impuesto sobre Sociedades.

Las modificaciones, que afectan a los dos Reglamentos, tienen por objeto someter a retención las cantidades percibidas en los supuestos de reparto de la prima de emisión de acciones o reducción de capital social con devolución de aportaciones efectuadas por sociedades de inversión de capital variable y otros organismos de inversión colectiva.

Según lo previsto en el párrafo tercero del artículo 3 del Reglamento Orgánico de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, no es preceptivo el informe de la citada Comisión.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 76/2007, de 11 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. La letra i) del artículo 101 queda redactada en los siguientes términos:

“i) Los rendimientos procedentes de la devolución de la prima de emisión de acciones o participaciones y de la reducción de capital con devolución de aportaciones, salvo que procedan de beneficios no distribuidos, de acuerdo con lo previsto en el segundo párrafo del artículo 44.2.a) de la Norma Foral del Impuesto.

No obstante, existirá obligación de practicar retención o ingreso a cuenta sobre los rendimientos del capital mobiliario a que se refiere el primer párrafo de la letra a) del apartado 1 de la Disposición Adicional Vigésimoprimera de la Norma Foral del Impuesto, así como sobre el importe de la prima de emisión a que se refiere la letra b) del apartado 1 de la Disposición Adicional Vigésimoprimera de la Norma Foral del Impuesto procedente de sociedades de inversión de capital variable constituidas con arreglo a la Ley de Instituciones de Inversión Colectiva.

Lo dispuesto en el párrafo anterior, resultará igualmente de aplicación cuando tales rendimientos procedan de los organismos de inversión colectiva previstos en el apartado 2 de la Disposición Adicional Vigésimoprimera de la Norma Foral del Impuesto.”

Dos. Se añade una nueva letra g) al apartado 2 del artículo 102 con el siguiente contenido:

“g) En los supuestos de reducción de capital social con devolución de aportaciones y distribución de la prima de emisión de acciones

101. artikuluko i) letrako bigarren paragrafoan aipatzen dira), ondokoek aplikatu behar dute atxikipena edo konturako sarrera:

1. Eragiketa Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko Legean araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek egin badu, sozietateak berak.

2. Eragiketa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araupetutako talde inbertsioko erakunde batek egin badu, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauko 54. artikuluan ezarritakoetako ez den eta Europar Batasuneko estatu batean eratu eta egoilartuta egonik egoitza Espainian duten erakundeek merkaturatzeko asmoarekin Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatuta dagoen batek, errentak ordaintzen dituzten erakunde merkaturatzaileek edo akzioak zein partaidetzak merkaturatzerako ahalmena duten bitartekariak eta, sorospidez, baloreak kokatzen edo banatzen dituzten erakundeek.

3. Eragiketa Zergari buruzko Foru Arauko hogeita batgarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian aipatzen diren talde inbertsioko erakundeetako batek egin badu, baloreen gordailuzain den erakundeak edo haien ondoriozko errentak kobratzen dituenak.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera atxikipenik ez konturako sarrerarik egin behar ez bada, konturako sarrera egin behar du ekarpenen itzulketa edo jaulkipen primaren banaketa jasotzen duen bazkideak edo partaideak. Konturako ordainketa hori araudi honetako 110, 113.5 eta 114.1. artikuluetan ezarritako arauekin bat etorritz egingo da.”

Hiru. 113. artikuluko 5. idatz zatia honela geratu da:

“5. Aseguru kontratuen bidez sortutako hartukizunetan eta kapital ezarpenen bidez sortutako bizi arteko errentetan eta aldi baterako beste errenta batzuetan, eta kapitala txikitzen denean ekarpenak itzultzeko eta akzioen jaulkipen primak banatzen direnean (kasu hauek araudi honetako 101. artikuluko i) letrako bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipatzen dira), atxikipenaren oinarria Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da.”

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren aldaketa.

Ondoko aldaketak egin dira Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuan:

Bat. 49. artikuluko 1. idatz zatia g) letra gehitu zaio; hona:

“g) Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko Legean araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, karga tasa orokorra jasaten ez dutenek, edo kapital aldakorreko inbertsioko sozietateen pareko talde inbertsioko erakundeek, beste estatu batean erregistratuta daudenek, eta higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauaren itzalpean dauden sozietateek kapital txikipenaren bitartez ekarpenak itzultza edo jaulkipen primak banatuta lortzen diren errentak, inbertitzaileen multzo murriztuak direla eta akzioak eskuratzeko, lagatzeko edo erreskatatzeko dituzten mugak gorabehera.”

Bi. 50. artikuluko g) letra honela geratu da:

“g) Araudi honetako 49. artikuluko 1. idatz zatiko g) letran aipatzen direnak ez beste erakunde batzuek akzioen edo partaidetzen jaulkipen primak banatuta sortzen diren errentak.”

Hiru. 51. artikuluarik b bis idatz zatia gehitu zaio; hona:

“6 bis. Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko Legean araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, karga tasa orokorra jasaten ez dutenek, kapitala txikitzen badute ekarpenak itzultzeko edo jaulkipen

previstos en el segundo párrafo de la letra i) del artículo 101 de este Reglamento, deberán practicar retención o ingreso a cuenta:

1. En el caso de sociedades de inversión de capital variable reguladas en la Ley de Instituciones de Inversión Colectiva, la propia sociedad.

2. En el caso de instituciones de inversión colectiva reguladas por la Directiva 2009/65/CE de Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios, distintas de las previstas en el artículo 54 de la Norma Foral del Impuesto, constituidas y domiciliadas en algún Estado miembro de la Unión Europea e inscritas en el registro especial de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, a efectos de su comercialización por entidades residentes en España, las entidades comercializadoras o los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones o participaciones de aquéllas y, subsidiariamente, la entidad o entidades encargadas de la colocación o distribución de los valores, que intervengan en el pago de las rentas.

3. En el caso de organismos de inversión colectiva previstos en el apartado 2 de la Disposición Adicional Vigésimoprimera de la Norma Foral del Impuesto, la entidad depositaria de los valores o que tenga encargada la gestión de cobro de las rentas derivadas de los mismos.

4. En los supuestos en los que no proceda la práctica de retención o ingreso a cuenta conforme a los párrafos anteriores, estará obligado a efectuar un pago a cuenta el socio o partícipe que reciba la devolución de las aportaciones o la distribución de la prima de emisión. El mencionado pago a cuenta se efectuará de acuerdo con las normas contenidas en los artículos 110, 113.5 y 114.1 de este Reglamento.”

Tres. El apartado 5 del artículo 113 queda redactado en los siguientes términos:

“5. En las percepciones derivadas de contratos de seguro y en las rentas vitalicias y otras temporales que tengan por causa la imposición de capitales, así como en los supuestos de reducción de capital social con devolución de aportaciones y distribución de la prima de emisión de acciones previstos en el segundo y tercer párrafo de la letra i) del artículo 101 de este Reglamento, la base de retención será la cuantía a integrar en la base imponible calculada de acuerdo a la Norma Foral del Impuesto.”

Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. Se añade una nueva letra g) al apartado 1 del artículo 49 con el siguiente contenido:

“g) Las rentas obtenidas como consecuencia de la reducción de capital con devolución de aportaciones y de la distribución de la prima de emisión realizadas por sociedades de inversión de capital variable reguladas en la Ley de Instituciones de Inversión Colectiva no sometidas al tipo general de gravamen u organismos de inversión colectiva equivalentes a las sociedades de capital variable registrados en otro Estado, con independencia de cualquier limitación que tuvieran respecto de grupos restringidos de inversiones, en la adquisición, cesión o rescate de sus acciones, así como por las sociedades amparadas en la Directiva 2009/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios.”

Dos. La letra g) del artículo 50 queda redactada en los siguientes términos:

“g) Las rentas derivadas de la distribución de la prima de emisión de acciones o participaciones efectuadas por entidades distintas de las señaladas en la letra g) del apartado 1 del artículo 49 de este Reglamento.”

Tres. Se añade un nuevo apartado 6 bis al artículo 51 con el siguiente contenido:

“6 bis. En las operaciones de reducción de capital con devolución de aportaciones y de distribución de la prima de emisión, realizadas por sociedades de inversión de capital variable reguladas

primak banatzen badituzte, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar dute.

Eragiketa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailearen 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araututako talde inbertsioko erakunde batek egin badu, hain zuzen ere Europar Batasuneko estatu batean eratu eta egoiartuta egonik egoitza Espainian duten erakundeek merkaturatzeko asmoarekin Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatuta dagoen batek, atxikipena edo konturako ordainketa errentak ordaintzen dituzten erakunde merkaturatzaileek edo akzioak zein partaidetzak merkaturatzerako ahalmena duten bitartekariak egin behar dute, eta, sorospidez, baloreak kokatzen edo banatzen dituzten erakundeek.

Eragiketa beste estatu batean erregistratuta dagoen kapital alda-korreko inbertsioko sozietateen pareko talde inbertsioko erakunde batek egin badu, inbertitzaileen multzo murriztuak direla eta akzioak eskuratzeko, lagatzeko edo erreskatatzeko dituzten mugak gorabehera, atxikipena edo konturako sarrera baloreen gordailuzain den erakundeak edo haien ondoriozko errentak kobratzen dituenak aplikatu behar du.

Aurreko zenbakietan ezarritakoaren arabera atxikipenik ez konturako sarrerarik egin behar ez bada, konturako sarrera egin behar du ekarpenen itzulketa edo jaulkipen primaren banaketa jasotzen duen bazkideak edo partaideak. Konturako ordainketa hori araudi honetako 53.8, 54.1 eta 55. artikuluetan ezarritako arauarekin bat etorriz egingo da.”

Lau. 53. artikuluar 8. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“8. Araudi honetako 49. artikuluko 1. idatz zatiko g) letran aipatzen diren errentetan, atxikipenaren oinarria Zergari buruzko Foru Arauko hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera kalkulaturako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 8a.– Diputatu Nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatu, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun Zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Foru Aginduak

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

1576

120/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa, hasierako onarpena ematen diona Aziluko (Iruraiz-Gauna) 3 poligonoko 106 lurzatian telefonia mugikorreko estazio-gune bat jartzeari interes publikoa aitortzen dion espedienteari.

AURREKARIAK

Vodafone España SA enpresak Azilun (Iruraiz - Gauna) 3 poligonoko 106 lurzatian telefonia mugikorreko estazio-gune bat jartzeko asmoa du. Lurzati horrek lurzoru urbanizaezinaren sailkapena eta baso babestuen kalifikazioa du.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak arautzen duen baimen izapideak betetzearren, Iruraiz - Gaunako Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitekto teknikoaren txostena barne.

en la Ley de Instituciones de Inversión Colectiva no sometidas al tipo general de gravamen, deberá practicar la retención o ingreso a cuenta la propia sociedad.

En el caso de instituciones de inversión colectiva reguladas por la Directiva 2009/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios, constituidas y domiciliadas en algún Estado miembro de la Unión Europea e inscritas en el registro especial de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, a efectos de su comercialización por entidades residentes en España, estarán obligados a practicar retención o ingreso a cuenta las entidades comercializadoras o los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones o participaciones de aquéllas y, subsidiariamente, la entidad o entidades encargadas de la colocación o distribución de los valores, que intervengan en el pago de las rentas

Cuando se trate de organismos de inversión colectiva equivalentes a las sociedades de inversión de capital variable registrados en otro Estado, con independencia de cualquier limitación que tuvieran respecto de grupos restringidos de inversiones, en la adquisición, cesión o rescate de sus acciones, la obligación de practicar la retención o ingreso a cuenta corresponderá a la entidad depositaria de los valores o que tenga encargada la gestión de cobro de las rentas derivadas de los mismos.

En los supuestos en los que no proceda la práctica de retención o ingreso a cuenta conforme a los párrafos anteriores, estará obligado a efectuar un pago a cuenta el socio o partícipe que reciba la devolución de las aportaciones o la distribución de la prima de emisión. El mencionado pago a cuenta se efectuará de acuerdo con las normas contenidas en los artículos 53.8, 54.1 y 55 de este Reglamento.”

Cuatro. Se añade un nuevo apartado 8 al artículo 53 con el siguiente contenido:

“8. En el caso de las rentas a que se refiere la letra g) del apartado 1 del artículo 49 de este Reglamento, la base de retención será la cuantía a integrar en la base imponible calculada de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Decimoséptima de la Norma Foral del Impuesto.”

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y tendrá efectos desde el 1 de enero de 2011.

Vitoria-Gasteiz, 8 de marzo de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

1576

ORDEN FORAL 120/2011, de 9 de marzo, Declarar de interés público la instalación de una estación base de telefonía móvil en la parcela 106 del polígono 3 de Azilu, municipio de Iruraiz-Gauna.

ANTECEDENTES

Vodafone España, S.A. tiene prevista la instalación de una estación base de telefonía móvil en la parcela 106, polígono 3 de Azilu, municipio de Iruraiz-Gauna, en terreno clasificado como No Urbanizable y calificado como zona de protección forestal.

El Ayuntamiento de Iruraiz-Gauna remitió el expediente para cumplimiento del trámite autorizador que ordena la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, incorporando el informe emitido por el arquitecto técnico municipal.